ALDE ZAHARREKO JAI BATZORDEA
COMISIÓN DE FIESTAS DEL CASCO VIEJO

2023ko Aldapako San Fermin jaien kartel lehiaketaren oinarriak

Aurten, bi kategoria izango dira lehiaketan eta biek oinarri berdinak bete beharko dituzte:

- 15 urtetik aurrera (15 barne)
- 15 urtetik behera

Oinarriak:

- Jatorrizko tamaina DIN A3koa izan beharko da. (Bertikala)
- Nahi bezala kolore erabili daitezke.
- Hainbat original aurkeztu daitezke.
- Kartel originalak formatu fisikoan aurkeztuko dira (15 urtetik beherakoek), eta egileak formatu digitalean izan beharko du, irabazle suertatu ezkero, Jai Batzordeari helarazteko (15 urtetik gorakoek).
- Abuztuaren 22 eta 23an Auzoenean aurkeztu beharko dira (Aldapa k. 3-5) 18:00h-20:00h bitarteko ordutegian.
- Kartel irabazleen jabetza Jai Batzordearenak izango dira, eta hauek erabiltzeko eskubide osoa izango du.
- Kartelak testu hau eduki beharko du:

ALDAPAKO SAN FERMIN - SAN FERMIN DE ALDAPA
Irailak 22, 23, 24 septiembre 2023
Antolatzailea: Alde Zaharreko Jai Batzordea.
Organiza: Comisión de Fiestas del Casco Viejo”

- Kartelak plika sistema bidez aurkeztu beharko dira. Originala, izendatutako sobre batean sartu beharko da eta izen bereko beste sobre batean, egilearen datuak (izen-abizenak, helbidea eta telefonoa).

Lehiaketaren sariak:

- **1. Saria:** 400€ eta 50€tako bonoa Santo Domingoko merkatuan erabiltzeko.
- **Txikien saria:** 100€tako bonoa egitarauan iragarkia duten edozein auzoko dendan erabiltzeko.

Kartel irabazlearen hautaketa:

- Jai Batzordeak lehiaketara aurkeztutako kartelen preselekzio bat egingo du. Aukeratutakoen artean kartel irabazlea bozkatuko du. Aurretik aipatutako arauak betetzen ez dituzten kartelak lehiaketatik kanpo geratuko dira.
- Zenbaketa egin ondoren, Jai Batzordea irabazleekin kontaktuan jarriko da.